

Lan-eskaintza

CEO / Cofounder

RECONNECT PROIEKTUA



Bizkar-muineko lesioek (BML) urtero ehunka mila pertsoneri eragiten diete eta ez dute sendabiderik. RECONNECTek irtenbide disruptibo bat proposatzen du: lotura neuronala leheneratzen duten eta galdutako funtzio motorrak eta sentzorialak itzultzen dituzten muineko inplanteak; haien bidez zeharo hobetuko da BMLk kaltetutako pertsonen bizitza-kalitatea. Nerbio-ehunekin integratzeko eta muina era funtzionalean konektatzea ahalbidetzeko garatutako material aurreratuetan oinarritzen da teknologia. Honetan datza haren lehiako abantaila: zelularik gabeko ikuspegia, biobateragarria, behin betikoa eta klinikoki bideragarria; gainera, garapen-bidean dauden beste terapia batzuen etikak eta teknikak gainditzen ditu, eta eskalagarritasuneko eta hartze klinikoko potentzial handia du.

Joan proiektura



Lanaldi osoa
Lanaldi partziala



Donostia



Hibridoa

Nahi den profila

- Egiaztatutako esperientzia bioteknologiako, medikuntzako edo osasun digitaleko start-upetan; osasun-produktuaren garapeneko prozesuari buruzko ezagutza, arau-esperientziarekin (CE/FDA); aurretiko esperientzia funts publikoak eta pribatuak lortzen eta negozioa garatzen; lidergoko, komunikazioko eta erabakiak hartzeko gaitasun handia; motibazioa eta ikuspegi estrategikoa.

Zeregin nagusiak:

- Enpresa baten sorkuntza eta hazkundea lideratzea, negozio-plana lantzea eta egikaritzea lideratzea; finantzaketa erakartzea eta inbertitzaileekin harremana izatea; arauzko garapena eta klinikoa ikuskatzea; aliantza estrategikoak sortzea ospitaleekin, osasun-sektoreko enpresekin eta pazienteen elkarteekin.

Interesatzen zaizu?
Sartu hemen, mesedez.